


Bizkaitarrei Bizkaieraz



375n. zenbakia • 2011 Urrilla



[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz)  
[www.euskerazaintza.org](http://www.euskerazaintza.org)

# Grezia Klasikoaren sorlekura bisitan



Euskalerrria  
edo Euskadi

# Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

## 2011-2012 IKASTURTEA

### BIZKAIERAZ 44. IKASTAROA IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: astelen eta eguasten  
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
urrutizkiña 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 10an

### 44. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: lunes y miércoles  
o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 140 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
Teléfono 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Comienzo: 10 de octubre

## ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERA ZALEAK**  
**BILBAO BIZKAIA KUTXA**  
**2095 0000 74 2000089615**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera erooten lagundu eiguazu!**  
**Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 25 €.**  
**Ez dozu ezer be idatzi bear.**  
**Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.**  
**Eskerrik asko!**

## Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz)

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

Kultura Saila  
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Flash Composition, S.L. - Bilbao

[www.flashcomposition.com](http://www.flashcomposition.com)

# Grezia Klasikoaren sorlekura bisitan



Arabako Lautadan dagoen Eturako parrokiak sus-tatuta, aurtengo Abuztuan, eta 8 egunez, Grezia ikusteko aukera bere gain artu eben 7 aguraindar eldu eta tolosar gazte bik. Illa orren 17tik 24ra bi-tartean antziñako istoria klasikoaren sorleku esan-guratsuenak ezagutu naian talde bidaiari ekin eu-tsoen. Norberak aurretik greziar kultura eta istoriaz ezagutza mailla desberdiñak zituan arren, oraingo-an alkarrekin eta bertotik ezagutzeko parada ezin obea eritxoen. Data urbiltzen ari zan einean gero eta andiagoa biztuten joakien ara joateko irrika.

Loiuko aireportutik Munich-erako egaldia artu eta geldiene laburra egin ostean beste egalaldia Atenasera. Egazkiñak Adriatiko itsaso-lerroan be-era egiñez greziar iriburua etxe-multzo zuriz betea ageri zan. Nabarmenena iriburuaren zabalera: alde batetik mendi magalak, bestetik Pireo kaira eltzen dan Egeo itsasoa. Etxeen altuera egokia zirudien: lauzpabost ezik, ez dago iriburuan deigarri dan dorre erraldoirik. Urira eltzeko errepide alboan atzerritik etorritako txabolategiak ezin ezkutuzko geratzen ziran.

Atenasko Parlamentu sarreran soldadu bik egiten dabe guardia. Ordu osoan gorputza mugitu barik egoten dira zutik, arma eskutik elduta. Greziar folkloreak jantzi dotoreaz atonduak, turista asko urreratuten dira euren alboan argazkia egitera. Ordu osoa betetzean beste soldadu pare bat etor-tzen jakie txanda aldaketara. Eta batzuk leku itzi zein besteak artu, minutu batzuetako desfile bitxia moldatzen dabe. Badirudi Parlamentu aurrean greziar izaeraren zaindari direla bere.

## Korinto

Lenengo bisita egunean, Salamina ugarte eta badia aurrez aurre dituen Korintora eldu giñan. Salamina deitura Bakea esanaia dauen Salam-etik eratorria izan daiteke. Greziarrek hor K.a. V. men-dean itsas gudu garrantzitsua izan eben. Persiarrek Golko Saronikotik sartuak ziran. Oneik inperio boteretsuaren andinaietan ebiltzan. Greziarren armada, aldiz, larrialdietarako presaka osatua zan uriburu-estatuaren artean. Armada ori batez bere, atenastarrek eta espartanoek osatzen eben. Persia-rreren aurkako bigarren gudaldia zan, 10 urte lenago Atenastik 42 kilometrora dagoen Maraton-en izan eben elkarren aurkako borrokaldia. Leengo aldian atenastar ausartak garaipena lortu eben. Persiarrak atzera egin bai, Ekialdera. Amarkada bat ondoren, ordea, an ziran barrero Atenaseraiño barneratzeko asmotan. Leenengo gudan persiarren erregea Da-rio bazan, bigarrenean bere semea Jerjes.

Korinto antziñaroan garrantzi andiko lekua izan zan. Itsasontziak ara iristen ziran bertan lurzoru mearra egoelako itsaso batetik bestera. Lurzoru orren gaiñean itsasontziak jarri eta egurrez egin-dako azpiegitura gañetik igarotzen ziran, Egeo itsasotik Jonikora. Egurrak olioaz igurtziak ziran eta orrela egiten eben bidea itsasontziak. Merka-tari eta itsasgizon askoren bil leku izanik euren dirua erruz gastatzen eben luxuz beterik. Tenpluei opari garestiak doaintzan izten eutsiezan. Guzti orrengatik Korinto uri berezia izatera eldu zan. S. Paulok Atenasko Areopagoan entzuleriaren mes-

prezua jasotzean Korintora joan zen. Uri onetako kaian langile ziranen jende xumearekin kristau elkarte bizia sortu eban.

Gaur egun Korintok badu ubide edo erreten berezia. Ez da Panama edo Suez-koaren tamainakoa. Baña Greziako ekonomiarako garrantzi andikoa da, Mediterraneo eta Adriatikoko itsasoaren arteko pasa-leku dalako. Neronen garaietan (K.o. 67 urtean) erromatarrek ubidea eraikitzen asi ziran, 6.000 esklabo bertan lanean ziarduela. Une batean Neron-ek Erromara itzuli bear izan eban Inperioko uriburuan bere aurkako mugimendua biztua zalako. Eraikitze lanak etenda geratu ziran. Ezin esan inoiz aurrera egin barik geratu zala. Gerora bizantziarrek eta ondoren veneziarrek euren saioak egin zituzten. Aro Garai-kidean artu zan berriro eraikitze asmoa. Orduan bai, ubidea eraikitzea lortu zan. Eun urte baño geiago dala (1869n) asi ziran ubidea zabaltzeko lanak, greziar gobernuaren lege batek aginduta.

## Epidauru

Goiz orretan bertan Peloponesoko erdiugarrean eta Argolida lurraldean dagoen Epidaurora eltzeko parada izan genduan. Urriburu-estatu independente onetatik 8 kilometrora Asclepio jainkoari eskainitako Tenplua eta Anfiteatroa, mailladi eran egituratua. Tenpluan Asclepiok sendatutako izenak arrian zizelkatuak geratzen ziran. Estalpe eta sabairik gabeko Antzoki den Anfiteatroa Grezian geratzen diranen osoenetariko da. Antzinaroan ezaguna egin zan neurri arkitektonikoen armonia miresgarriagatik.

## Mizenas

Izen orrek grezieraz antziñakoa esan gura dau. Greziako egoaldea babesteko gotorleku erraldoia. Bosteun urte inguru dauen greziar historiaren garai oso bat mizenikoa deitua da (K.a. 1600 urtetik 1100ra), leku orrek izan eban lidergoa azpimarratuz. Bertako biztanleak akeo deitura artu eben, eta greziarren artean erotizat artuak ziran. Mizenas-en goi uri edo akropolia egoan. Gotorlekua ziklopea dala esaten, arlosak arri erraldoiak diralako. Garai batean uste izan eben alako arri andiak soilik Ziklopeak (begibakarreko giza erraldoiak) erabil eikezala. Gotorleku barnean jauregi andiak eraiki zituezan.

Mizenastarren bizitza zentzu erlijiosoak gidatua burutzen zan. Santutasunari garrantzia emoten eutsoen. Euren erregeak arriz jasotako illobi erraldoi eta biribilletan lurperatzen zituzten. Bestalde, ildakoen omenez gizaki bizidunak eskaintzen zituzten oparizat.

Mizenastarren oroimena greziarren mendetan iraun eban. Garai ari Aro Illuna deitzen yako. Homeroren Iliada eta Odissea poema epikoek inperio onen oroitzapena finkatu eben. Pasarte batzutan Agamenon errege mizenastarra ageri da, Troiako gudan greziarren buruzagi gisa. Aro Klasikoan Mizenas barru populatua izan zen, baña ez eban aurreko arrakastarik lortu. K. a. 468. urtean Argos-koek garaipena lortu eben, eta Mizenasen bizi zirenak kanporatu.

Beheko argazkian Gotorlekura sartzeko Leoiaren Atea, 1841 urtean Pittakis arkeologo greziarrak aurkitua.

## Olimpia

Bigarren egunean Olimpiara abiatu giñan. Peloponeson kokatutako uri zaar au Oronio mendi-magalean dago kokatua. Bertan leen Joko Olinpikoak egiten asi ziran. Joko Panhelenikoak, greziarren lurralde guztietatik etortzen zirelako. Ekitaldi arik zazpi mendez ospatu ziren (K.a. 776 urtetik K.o. IV. mende bukaera arte, non Teodosio enperadoreak debekatuak itzi zituen).

Olimpia aldi berean gune erlijioso garrantzitsua zan. Tenpluko ornidura baliotsuak arkadioek lapurtu eta eraman zituezan. Erromatarren Inperio garaian Neronek jauregi bat eraikitzea agindu eban. Adriano enperadorea il ostean, uriak beerakada andia izan eban. Gerora barbaroek lekua desegin eben. Eta geratzen zen gitxia tsunami antzeko uolde erraldoiak lurpean estali eban. Lurpean geratu zana berreskuratu aal izaten danez 1829 urtean asi ziran arkeologi lanak. XX. mende erdialdera Estadioa azaleratu aal izan zan, gañeko lurra kenduta. Oraindik bere, arkeologi lan andia geratzen da, gune ura nolakoa izan zen gero eta obeto ezagutzeko

## Delfos

Irugarren egunean bisitatutako lekua. 42 graduko bero itzela goiz zein eguerdian. Parnaso mendiaren magalean kokatzen zan gaur egun ondakin istoriko. Bere garaian uriburu landua. Apolo jainkoari eskainitako leku sakratua zan, eta tenplu nagusia berari eraikia. Greziako leku askotatik etorten ziren ona Pitonisak eta apaizek gai korapilatsuak argi egiezan. Mendiaren arkaitzetatik sortutako iturburuei ainbat iturri moldatu eutsezan. Iturrien artean ospetsuena Castalia deitutakoa, baso

erdian erramu zuaitzez inguratua. Mitologiak inoan bertan musa deituko jainkosa batzuk (abestia eta poesiaren jainkosak) iturriko ninfa edo nayade-ekin biltzen zirala. Topaketa orreitan Apolok lira musika tresna jotzen ebala, jainkosak abestu egiten eben.

Delfosek garrantzia andia izan eban antziñako Greziako politikan erabakiak artzerakoan. Kontsulta egitera etortzen ziranak itsasoz etozan, Delfos ondoko kai batean lurreratzen zirala.

Apolo jainkoak mendi inguruetan bizi zen Pitos suga il eban, bere jakinduria ostuteko eta orrela jakinduriaren jainko bilakatzeko. Mitologiaren arabera, bein Apolok suga il, bere errautsak sarkofago batean sartu zituan. Oroimena gordetzeko illetajoko batzuk antolatuta itzi zituan: Joko Pitikoak. Gerora zurrumuru bat zabaldu zan: Delfosko Apoloren tenpluan Pitos-en sarkofagoa azpian onfalos arria egoala. Onfalos izenak munduko zilborra edo erdigunea esan nai eban. Ortik sortzen joan zan Pitonisa itza, tenpluan kontsultak argitzen eban emakumeari orrela deitzen asi jakon eta.

## Meteora arkaitzetako monasterioak

Laugarren egunean Meteorako arkaitz arrigarrietara igon giñan. Meteora itzak "airean eskegitakoa" edo "airetik beera jaisten dana" esan nai dau. 1988 urtean UNESCOk Gizateriaren Ondare izendatu zituen monasterio auk. Greziako iparraldean kokatuak dagoz, Tesaliako lautadara begira. Kristautasun Ortodoxoaren gune garrantzitsu dira. Arkaitz andi batzuen 600 metroko altuerako gaillurretan eraikitako monasterio oneik, arkaitzen erosioa dabe arazo nagusia. XIV

mendetik ona monjeak eraikitako komentuetan bizi dira, naiz eta leenengoak XI. mendean bizileku bezala arkaitz zuloak artu. Gaur egun batez bere moja lekaimak bizi dira, bein Bigarren Gerrate Mundialean aleman armadako soldaduak bertoko monjeak beerrantz amildu eta zenbait komentu desegin zituztenean.

## Atenas

Greziako uriburu onetan bidaiaren azken iru egunak eman genituen. Uriburu zabal onek gaur egun 5 milioi biztanle ditu: nazio osoaren eren bat. 3.000 urteko istoria daroa bere gain, argitasun osoz. Grezia Klasikoan uri-estatu boteretsua izandakoa. Demokraziaren sorrerak zerbait baño geiago zor dautso uri onek izan eban jarrerari.

Bertan antziñako filosofo garrantzitsuak bizi izan ziran. Emen sortutakoaren eragiña gerora Erromatar Inperioa zabaldu zan, eta ondoren Europa Mendebaldeko kulturara.

Arkeologian erabat aberatsa da. Arrasto guztien gañetik Akropoli muñoan eraikitako Partenon gaillentzen da.

Atenasen gainbeera Esparta aurkako guda galtzean asi zen. Ondoren Mazedoniako botereari ezin aurre egitean. Azkenik Erromatarren konkistari gera eziña. Soilik 4.000 biztanle ebazana geratu zan. Bizantziar Inperioan bere, ez eban aurrera egin. 1456 urtean Otomandar Inperioaren esku gelditu zan, XIX. mendean askatasuna lortu arte.

Veneziarrek 1687urtean sekulako estanda eragin eben turkoen bolborategian, eta ondorioz Partenon ia txikituta -edo beintzat erdi deseginda- gelditu zan.


## Greziar platerak dastatzen

Irika genduan Grezian zear eguneroko otorduetarako nolako janak eskeñiko zituzten. Lenik eta bein konturatzen zara gaur egungo jangaiak ez dirala garai bateko Grezia klasikokoak. Eguneratuak dagozala, ain zuzen. Ba da jangai oiko bat plater askotan: olioia. Elikagai bakoitzari zapore apartekoa emoten dautso olioaren erabilerak.

Egia esan, hotel eta jatetxeetan kanpoko turistei eskeintzen dautsena Mendebaldeko sukaldaritzaren itxura andia dauko. Jate-txeetako menuetan italiar pasta eta antzeko erraz aurki daiteke. Eta hoteletako buffetetan ainbat lekuetako platerak. Baña ba dira greziartasunaren ezaugarri diranak: jogurt eta gazta greziarra. Zer esanik ez, ain ezaguna den Moussaka, azpian berenjenazko azala daukala. Bestalde arkume okel errea bikaña da. Kostaldetan eta irletan arraiña nabarmen eskeintzen dautzue. Bidaiako garaia abuztu beroa zanez, entsalada multzo onak olio z ongi atonduak

Atenasen asi eta Atenasen amaitu genduan ibilbide zoragarri au, Antziñako Grezia Klasikoa gozatuz. Merezi dau arriek antzematen daben istoria loriatsu artara urbiltzeak. Azken argazkian agiri diran Kariatideak dantza mugimenduan ei dagoz, anka bat bestearen aurretik, eta beso bat bestearen erritmo kontrajarrian. Orrela bizi aal izango dogu: bizitzari txistuka eta dantza keiñu baketsuan.

**Patxi Otamendi**  
*Agurainen 2010.08.31*



# Euskalerrria edo Euskadi

## “Berezko sorterri edo aberria da” (VIII)

### SARRERA.

Euskalerrriak bere zabaltasunezko lur aundietatik gaur daukan neurriraiño murriztuta agertu arren, euskal sinismenaren nortasunezko jabetasunean ezer ez ebalatu, argi ikusten dogun gauza da, oraiñarteko edesti kondaira onetan.

Euskalerrriko Iparralde, Nafar erregetza lez irauten eban.

Euskalerrriko Ego aldean, Araba ta Gipuzkoa nortasunezko jabetzan, gaztelatarrakaz euki eben itzarmenean aurrera egiten eban.

Nafarroa 1.512an naita Fernando katolikoaren gudamenpe geratu, eta erregeakaz euki genduzan itzarmen bidez anai artean beti borrokan ibili arren, bere nortasun osoan irauten ebalatu ikusten dogu.

Eta Bizkaia bere Foruen nortasunezko jabetasunean errege katolikoakin, indartuta urten ebalatu, gero I Karlosetik aurrera, Austriatar gustiekin ikusten dana da.

1.506an Espainako gortearen jabetzazko eritzian, garrantzi aundiko gauza bat sortu zan, emen kontu aundiagaz argitu bear doguna.

Gaztelako gortetan Euskaldunai, ez eutsien sartzen itzi, berba auek esanda: *“Porque (eran o) son gentes de estado separado”*.

Esan orreik eurak bakarrik adierazten dabe, Euskaldunek egiten ebezan itzarmenak, aukeratu egiten ebezan Jaun erregeekin egiten ebalatu. Eta gure jauntza aldi orretan espainiar erregearen eskuetan egon arren, erregearen pertsunagaz egiten zala itzarmena, espainiaren eragipenetik kanpo.

Jaun erregearen borroka ugari orreik artezean baiña, Euskal Izatasunaren aurka ez zirala izan esateko, korapillo ori zelan lokabetu edo askatu ?.

Borroka guzti orrein zentzuak, erregeek euren norkerizko nagusitasunean asmatzen ebezan eskubideetatik agertzen ziran, eta euskaldunek jaun erregeekin egiten genduzan itzarmen bidez, beti lotuta agertzen giñelako bata edo bestearen alde, geienetan anai artean borrokan ibili giñan.

Nizean, mundua katoliko eritzian batzangotzeko artu zan erabagitik, Aita Santuak euren ondorengotasunean, kaizar sakratuaren domiña aundia ipinten eban dindilizka erregeen buru gaiñetan, indartsuenak bideratu egiezan orotasunean batzangotasunezko asmakizun orreik.

Orduko European orregaitik, borroka orreik ez ziran joaten zuzenean berezko erri edo Euskalerrriaren aurka bezela, katolikotasunezko legedi arauetan sinistuazo ta euren borroka zearbidez<sup>(1)</sup>, gura ebalatu euskaldunak eta berezko errigizarteak euren txeberazko sare orretan arrapatu.

(1) Zearka, zearbidez = indirectamente.

Mundu onetan baiña, kontu aundiagaz bereiztu bear doguz, zeintzuk diran gizonaren asmakizunak eta Jainkoaren Legeak.

Europar naita batzangoaren asmakizunean lur zabalak eta semealaba asko katoliko sare orretan arrapatuta geratu, beste erdiak fazizta erlijio orren bidez lelotuta egon arren, eta oraindiño berezko erriaren eskubideko legeakaz ezer erabagitu barik, eltzen gara XVIIIIn gizalde onetara.

Eta oraiñarteko batu zale asmakuntzazkoak, euren elburuak amarrukeri orrekaz ez badabe lortu, XVIII gizaldi onen askeneko aldian artzen dira zuzenezko erabagiak, gudu indarraren laguntzagaz lortzeko.

## 1.789an Frantziko Iraultza.

Frantzian, nun edo nundik erabagituta agindu zan, iraultza ori egitea ?.

Europaren etorkizunari begira, aurrerakuntzazko oinkada barri bat emon bear jakon: *Diru kontuan, nekazaritzan, merkataritzan, burnigintzan eta eurentzako bear ziran lanategi gintzak*, beste egokitasun barri batzuk eskatzen ebezalako.

Europar baiña, nortzuk egon ziran entrabalotuta ardura orrekaz ?.

Merkantilismo ta Katoliko asmakuntzaren indarrean, kaizartzako agintaritzan txuntxur antzeko lerrokadan arduratuta egon ziranak zalantza barik.

Frantziko erritarrak orregaitik, eziñ ziran izan iraultza ori egin ebenak, euren eskuetan ezer eukinez gain, naikoa euki ebelako txuntxur antolan agintari guzti oiek elikatzen, eta euren sendiak aurrera ataraten.

Katolikotasunean ondo babestuta, erdi maillako jauntxoak izango ote ziran, larregiko bizibide ona euki ebenak gauza orrein arduratan sartzeko ?.

Ondo jakin ebenak, goian lenengo maillan egon ziran arduradunak izan ziran, zer bear zan aurrerako oinkada orreik emoteko, bizitzeko bear genduzan mozkin guztien kontrola euren eskuetan egon zalako.

Edestiko aldi onetan orregaitik ikusten da argitasun guztiagaz, gure biziaren erabilitasuna zentzuz aurrera eroateko, Jainkoak mundu oneri erperatuta ipini eutsozan Legeditik lege atalak artu barik, katolikotasunezko kaizartzan batzangotzeko erabagitu ziran norkerizko legeak artu zirala.

Eta lege orreik menpekotasunezkoak ziranez, gudu indarra artean eroaten eben, eta orrela ikusiko doguz aldi onetatik aurrera, artuten diran erabagi guztiak.

Orduan egokitu bear ziran, Giza eta Berezko Erri-gizarteak daukazan eskubideak.

Mundu eta Europaren Jendekuntzan alango aurrezko oinkada bat emon ezkerro, bera osotzen dauan ordezeko egille guztiekin, neurri bardiñean, aurrera egin bear ebalako.





Ez ziran neurri orreik kontuan artu, Europako aol-  
kulari nagusiaren baimenagaz mendeko ate guzti  
orreik zabalduta, merkatariak liberalismoaren jaur-  
kintzazko asmoan ekarten eban guda indarrezko  
bizkortasunagaz, eskubide guztien gaiñetik ezarri  
zalako.

Eta Europan ortik gaur arte artu diran erabagi guz-  
tiak, menpeko sasilege era orreitan ikusiko doguz,  
nortasunezko errigizarte ezberdiñak batera bizitzen  
beartuta laterritutako lurraldeetan.

Menperatzailleak, norkerizko “**Nacional Katolicis-  
mo**” orretan bizi gindezana gura dabe.

Guk baiña, gure baitaren argiak eragipenduta,  
Jainkoaren Legean nortasunduta bizi gura dogu,  
eta or ulertzen dira mundu onen edestian askeneko  
2.000 urteko borrokaldi latzak.

## EUSKALERRIAREN ARAZOAK, 1.789ko URTETIK GAUR ARTE.

IIen Karlos “*lilluratua*”<sup>(1)</sup> ondorengo barik il zane-  
an amaitu zan Austriatar Hasburgoko leiñua, eta  
Espainako jaurkintza, bere arrebaran Maria Teresa

Frantziko errege XIVn Luisegaz<sup>(2)</sup> ezkondata egon  
zanaren birseme, Borboi leiñuko Anjoutar Vn Felipe  
pen eskuetan itzi eban.

Vn Felipe Frantziko jaurkintzaren gortekoa izanda,  
goitik berako batzangomende eritzikoa zan, eta  
1.700-1.714 urte arteko ondorengo guda sortuta,  
Aragoi ta Katalunya Austriako Karlosen alde egon  
ziralako, “*Nueva Planta*”ren legea aterata, eukezan  
Foruak ezereztu ebazan.

Kataluñak, 1.977ko Iraillan askatasunezko ezkuo-  
tasun<sup>(3)</sup> antzeko bat lortu eban espainiarren jaurpi-  
dean.

Euskaldunak eta Bizkaitarrak batez be, jakin eben las-  
ter agertuko zala onantza, eta alan sortu zan, mugak  
Gaztelako lurraldetik Bizkaiko itsasoraiño aldatu gura  
ebazanean portuen merkataritzazko zerga ordaiñak,  
gure erriarentzat bearrezkoak eta gaiñera gureak izan-  
da, ordaiñ orreik eurak artu gura ebazalako.

Bizkaiko gizartea matxinatu ondoren, Vn Felipek  
ezereztu ebezan agindutako lege orreik, eta mugak  
ostera joan ziran beren lekuetara, Foruak beti lez  
geratuta.

(1) *Lilluratua* = *el hechizado*. (2) XIVn Luis = rey “SOL”. (3) *Askatasunezko eskukotasuna Espainaren jaurpidean* = *autonomia bajo el imperio de la constitución Española*.



Arik eta 1.839ko Urrillaren 29an Karlistadako gudaingar bidez Esparterok Gazteizetik, Foru Legeak ezereztu arte.

## VII In Fernando.

1.808an Epaillaren 19an Asturiaseko printzearen alderdia gogor eginda lortu eban, IVn Karlosek erregetza, bere seme VII In Fernandoren eskuetan itzi egian.

1.808an Jorraillaren 15ean VII In Fernando, Napoleonegaz Baionan alkartzeko Gazteizen egoala, Bizkaitarrek gure Lege Foruak ziñez izenpetzeko, Gernikara joateko eskatu eutsoen.

Eta 1.808an Jorraillaren 15eko egun berean, Bizkaitar beste talde bat be aurreratu jakon, indarrez ipinita eukezan portuko kapitañak edo gudal buruzagiak kendu egiezala, Bizkaitarrak bere jaunagaz euki ebazan arremman onak, ostera bere onera ekarteko.

1.808an Jorraillaren 17an VII In Fernandok, euki genduzan Foru Lege guztiak baieztuz, gauza biak

onartu ebazan, eta agindu ebazan bear ziran alda-ketak egiezala, Bizkaitarrak euren egokitasunezko askatasunean jarraitu egien.

1.808ko Loraillaren 6an Napoleonek, IVn Karlos eta VII In Fernando Balenzaiko gazteluan atxilotuta eukazala, gortearen ekintzazko antzeko bat egin eban, bere anai Napoleon eta Bonapartetar Jose Espainako errege aulkian ezartzeko.

Napoleon eta Bonapartetar Josek, Bizkaiko Urkijotari Mariano Luis, bere ordezeko ministrua, eta Mazarredotar Jose Domingo gudaontziren ministrua izendatu ebazan, eta Mazarredotar Jose Domingo Bizkaiko Batzar Nagusietan buru zala, Bonapartetar Josek, itz eman eban Bizkaiko jaun lez.

Napoleonentzat baiña, gauzak ortik aurrera okertzen asi jakozan, eta a ta guzti, Napoleonek Euskal Nortasuna onartu ta be, berak Europako Laterri guztiak lez, Euskal izaera Frantzez biurtu gura eban.

Frantzezak IVn gizalditik asi ta, beti ekarri dabelako azpian batu zaletasunean marratuta meneko eritzi ori, eta asmo oiekaz, Munduko Kaizar baten agindupean elburutu gindezan.





Bizkaiko gizartea matxinatu ondoren, VII In Fernandok ezereztu ebezan Euskalerrri eta Bizkaiarentzat batez be menpeko lege orreik.

Baiña leen espainiar gudataldeakaz eta gero Frantzesarenakaz ia bost urtetan, iru bider orren aldizkan ainbeste nekaldi ekarri ondoren, beste garrantzizko gauza bat sortuko zan: “*Batzuk Frantzez zale eta beste batzuk espain zale egin zirala*, Euskal gizartearen Baita naspillatuta, gero Espainol jaurpideekin eta karlistadaren guda bidetik, geiago naastuko zana.

1.810ean Iraillaren 24an, guda nagusiak, Kadizeko gorteetan erregearen ordezkoa egiten egon zirala sortu eben “*espainiarren jaurgo barria*”<sup>(1)</sup>, eurak aitu edo gura eben Espainol guztientzako ezarri bear zala ta, Euskal Lege, Nortasun eta Berezko erri lez euki genduzan eskubideko askatasunak kontuan artu barik.

Gudalburu nagusiak une oneitan euki eben guda indarragaz arrotuta, erregearen gaiñetik kokatu ziran, jaurgo barri ori, danez gain ezarri gurean.

Baiña begitu zer agertzen da emen: “*espainiar guda nagusiak erregearen irudia buru lez euki gura ebenak, euren agindupean edo sortu eben konstituziozko jaurgo barri orren legepean beartuta ezarri ebela*”.

Gudal nagusi areik, zelan egin ebazan gauza orreik, erregearen gaiñetik eurak ez ba ziran iñor, lege barri orreik egin eta gitxiago ezartzeko ?.

Orregaitik, European nortzuk euki eben agintaritzazko indar nagusi ori, azpiko aolku orrekaz, laterritasunen kaizartzazko batzangotasun orreik ezarri zitezen ?.

Danok dakigu, diru zalekeri aldekoakaz batera, Erromako katolikotasunak zer gura eban Europa ta Mundu guztirako, bera izan zalako erregearen gai-

(1) *espainiarren jaurgo-barria = creación de la nueva constitución Española.*

ñetik Europaren aolkulari nagusi ta bakarra 1.685 urtetan.

Mendizabalek<sup>(2)</sup> orregaitik, Kadizen egoan espainiar gudal gorte edo guda yaurlari<sup>(3)</sup> agindupean sortu zan konstituzioaren legezko jaurgo barri ori, Bizkaian ipini gura eban, Euskalerrarentzako Zeruararen oneitariko atsegin sari bat lez, espainiarren beste lurralde bat geiago izan edin, eta orretaz agindu zan.

Espainiarren gizarte guztia emendik aurrera alderdikidetu egingo zan, espainiar konstituzioaren alde edo jaurgo barriagaz aurrera egin gura ebenak, eta lengo antzera, erregearen al osokerizko agintaritza gura eben artean.

1.812an Urrillaren 17an indar eta maltzurkerizko auteskundean aukeratu ziran euren aldeko euskal ordezkariai, Kadizen egoan guda yaurlariaren aurrean aurkeztu zitezela agindu eutsen, espainiarren jaurpidezko agiri orreik izenpetzeko.

Eta 1.812an Azaroaren 1erako antolatu zan, espainiarren jaurgo agiri barri orreik, Bizkaiaaren Udal guztiko erritarren aurrean irakurri eta gero ziñeztu zitezzen.

Bizkaitarrak narda askorekin egin ebena.

1.812an Abenduaren 13an jaurgo orreri ziñ egin

ondoren, Euskalerraren iru lurraldeko Udal guztuari agindu eutsen, 1.813n urte guztirako Espainar eritziko ordezkariai aukeratu egiezala, Euskalerra ta Bizkaiko gizartea, oiñaze ta nekaldi aundi baten sartuta.

1.812an Abenduaren 31n, ostera sartzen dira prantzez gudalozteak.

Eta 1.813an Bagillaren illa erdian, ostera urtetan dabe Prantzez gudalozteak Bilbotik.

1.813an Bagillaren 21ean, Arthur Wellesley Wellington dukeak Gazteizen, Napoleonen gudaloztea menperatzen dau, eta Napoleonen guda taldeak ortik aurrera, Frantzira aldatzen dira betiko.

1.813an Uztaillaren 21ean, Espainaren lurralde guztiko gotzaiñak asi ziran keiñatzaille esaten, *espainiar ordezkari gaitik iñork ez egiela txarto barbarik egin, zuzen edo ostonduz, iraulketaren eritziak sartu ez zitezzen.*

Eta orretarako, espainiar eleiz guztietan, urte guztietako Epaillaren 19an “Te Deum” abestu egiela agindu zan, espainiarren jaurgo zaleak ekarten eben askatasun omenez.

1.813an Azaroaren 11n, Napoleonen gudalozteak porrokaldi gogorra artuta, Napoleonek Balanzaien elkargo bidez ziñatu bear izan eban



(2) Mendizabalen izen-abizenak = Juan Alvarez Mendez izan ziran, 1.790an Kadizen jaiokoa. (3) Guda yaurlaria = gobierno militar.



VIIIn Fernandoren askatasuna, bere erregetzazko aulkian ezarri egian.

1.814an Epaillaren 13an VIIIn Fernando, Frantziaren lurraldeko Balenzay erritik urten eben erdi ugarte edo peninsula ontara.

1.814an Loraillaren 4an VIIIn Fernandok Balentziatik, espainiarren jaurgo zale gudu ordezkariak Kadizetik keiñuz agindu ebezan lege guztiak, ezereztu ebazan, eta gure Foru Legeak ostera ezarri ziran betiko eredutasunean.

1.814an Urrillaren 15ean VIIIn Fernandok, ostera baieztatzen dauz Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Foru Lege guztiak, Bagillaren 27ko eskutitzan egin ebanez. Eta, 1.814an Abenduaren 14an Nafarroari beste agindu batekin, bere erregetzazko eskubideak berezkuratu eutsozan.

1.819ko urtean IVn Karlos, VIIIn Fernandoren aita, Napoleonen atxilotasunetik aske geratuta, peninsulara itzuli barik, Erroman bizi zan, bertan il zan arte.

1.820ko urtean, ostera azten dira gure Foruen aurkako eraso aldi gogorrak.

Guzur, maltzur eta indarrezko bidetik Euskal gizartearen *Arrazoizko Baita* lokaztu egingo dauana, eta urtearen aldaketa bidean, Euskal Nortasuna ezereztasunezko amiltegitira bideratuko dauana.

1.823ko urtean VIIIn. Fernandok, guda buru jaurgozaleak beartuta Espainako jaurgo barriari ziñezko itza emon bear eutson.

1.823an Jorraillaren 2an, Prantziako errege XVIIIIn Luisen guda lozteak, Angulemakoko dukearen agintean Baionatik agindu eban: *“Peninsulara aldatuko zala VIIIn Fernandoren laguntzan, bere erregetzaren absolutismo edo alosokerizko jaurkintza lortu egian”*.

1.830ean VIIIn Fernandok, **Salikako** legea ezereztu eban, bere alaba Isabel errege aulkian ezarri zedin.

Eta Espainaren ondorengo guda sortuta, gure Euskalerrriarentzat zoritxarreko ondorioak ekarriko ebazan, txeberazko guda orreitan nai ta nai ez, nastuta geratu giñelako.

1.833an Iraillaren 29ko arratsaldean VII In Fernando il zan, eta bere emazte Maria Kristinak artu eben orde z espainiar jaurkintza, arik eta euren alaba II In Isabel erregetzazko adiñetara eldu arte.

1.833an Azaroaren 30ean, erregetzaren jaurgu bariaren agindua.

1.833ko Urrillan sortu zan espainiar erregetzaren ondoriozko guda, karlisten aldetik, VII In Ferdandoren anaia Karlos Maria Isidrok bideratuta.

## ONEN ONDORIO LABUR BAT.

Espainako II In Isabel eta Karlosen anai arteko ondoriozko guda orreik, euki ba eben be, ez eben euki erregetzaren aulkiagaz zer ikusirik, ondorio ori aitzaki bat baiño besterik ez zalako izan.

Aldi onetan egon ziran eztaibadak askoz sako-nagoak izan ziran, batzango eta merkataritzaren asmoak, erregeen erispeneko goi aldetik ibili zira-lako.

Nun egon zan Europaren Ekanduzko aolkulari nagusia ?.


Europar aolkuz, nork euki eban agintaritzaren indar nagusiena ?.

Erregeari guda nagusiak gaiñean ipini jakozan antzera, berari diru zaleak gaiñean ipini ote jakozan?.

Ala, katolikotasunaren eritzian danok batzango-tzeko, alan egitea gura eban, aolkularitzan aginten eban Erromako sorraldi orrek ?.

Emen, esango dodazanetik salbuespen aundi bat egin bear dogu, berezko errietan Euskalerrian lez, eskertu ezin doguzan Gotzaiorde, Apaiz, Lekaide, Lekaime Abertzale demokratiko asko izan zirenak eta gaur diranak daukaguz, euren jakiturizko laguntzarik gabe, Euskalerraren izatasuna gaur, ezereztuta egongo litzakelako.

Kaizar batzangotasun asmo orrek, errikoi izatasu-nean naste asko sortzen dauelako, eritzi bien arteko ezberdintasunagaitik berba egiten gagoz emen:





Bata, bereiz edo izatasunezko errietan euren Baitan, Jesusen itxarokorrezko ekanduan mezu demokratikoak zabaltzen dabezan Gotzaiorde, Apaiz, Lekaide, Lekaime errikoienak.

Eta bestea, danon gaiñetik Erromako katolikotasun agindu gurean, munduaren edestiko berezko-tasunean lortu ziran oiturazko izatasun ta ekandu demokratikoak, Norkerizko batzangotasunaren egarrrian ezereztu naiagaitik.

*Son como ovejas*, esaten dabela sarritan entzuten dogu.

Bai ?.

Eritzi orregaz, *nungo kontuetan* artzen dira *Jainko Egilleak* ipini euskuzan *Legeak* ?.

2.000 urte daroaguz batzangotasunezko borroka latz orrekin, dan guztia batu baiño, milla zati geiagotan apurtzen dauazan, erri, izkuntz ta ekanduzko oiturak.

Ez ete da naikoa ?.

Antza ez, begitu bestela gaur zer egiten dan Euskal gotzaiekin, naita Euskaldunak izanda gure

Euskeraren Nortasunezko izatasunean egokitu ez zitezen.

Ta Euskaldunak izan da be, norkerizko kaizar edo katolikotasunaren batzangotasunezko eritzian gizon egiñak bialdu, ia Euskaldunok espainiar biur-tzen ba gaituen.

Idaz lan onen aria ostera artuta gero ikusiko dogun lez, Aita Santu, gotzai ta apaiz katoliko aolkulari asko lenengo karlistadaren alde ibilita, liberalak garaipentzen asi ziranean, gauza orreik eurakaz ez ba ziran etorten ostondutako itxuran, liberalaren aldera guztiz aldatu ziran.

Ondore, Europako edestitik etorten ziran mende-ko asmo ta fazizta eritziakin alkartu ziran.

Nik emen, naita batzango zaleak izkutuan ekarri arren, sasikatolikotasunaren eten bako azpi joko maltzur aundi bat ikusten dot, ainbeste urtetan berezko-tasunaren aurka egin ta egiten dabezan gauzak, ezin diralako ostondu.

Erromako sasikatolikotasuna baiña, ez ete da kontu-ratuko, laugarren gizaldean erabagi zan kaizarrezko

batzango asmoa, faziztaren eragille nagusia izan da, gatz egiten jakula siñistea maltzurrezko jokabide ori ?.

Bizi onetan gaiñera, milla urte askoren eginkizunezko jokabidetik eta *azter bideko antolakuntzan ulermenduta, argitasun guztiagaz agertzen ba jakuz baitaren emaitzak.*

Aztu ete jakie, *Jainkoari* begira bizi onen *zor esku-bideak* ordezkatzeko, ardatzeko eragille arduradunak, itzal aundiko ekandu ta maitasunak dirala?.

Dana dala, orren arrazoiaren esan naia, *Europan egon diran borroka latz guztiak, kaizar mendeko batzangotasunaren asmo zaar orren elburugaitik izan dira*, batzuk norkerizko lilluragarritasunean bizi daitezten.

Eta orregaitik, bizitzako panpiñaren ariak euren naiera erabilita, ez Karlistadarenak, ez Europako edestian egin diran amaibako borrokak daukie beste adierazpenik.

Oso susmagarrizkoa da, gaur errigizarteetan diruagaz sortzen dana. Nork antolatzen dauz sare arteko txebera orreik ?.


Ala, erabillitasunaren biziko zabaldegian daukaguzan Norkerizko arauak, *Jainkoaren Legeak* aurkezten dauskuzan eskualdi guztiakaz topo egin dabela ta, guzur geiagorik ez dalako sartzen ote da ?.

Lenengo susmoa baztatu barik, Nik uste dot, azkeneko arrazoi au dala errukari, bizitza onek, beren legeak daukazalako.

Orregaitik, giza ta berezko errigizartearen esku-bideari begituta nik egiten dodan itauna: gai bizi onetan, Jainkoari begira lortutako baitaren ekanduzko ulermenak “Kamaleoien margo edo kolore beste arpegi eukiko ote dabe ?”.

Danok dakigu, gaiaren atal edo zatitxo guztiak aurkezten dauskuezan almenak, eta Bere Legearen bidez eurakaz ardurazko ekintzan egin geinkezan itaunak, amaibakoak direla.

Baiña ez lapurkerizko bidetik, gaitasun onen baitak eskatzen dauskun zentzunezko elburuekin baiño.





Bestela, edestiak erakusten daukun lez, dan guztia: “borroka, eztanda, oiñaze, negarra, samiña eta ezbearretan biurtzen jaku”.

Orregaitik, gure bizitzako ekintza guztiak elburu bardin bategaz, Jainkoaren ezin besteko Lege bidetik, bealdetik gora jasotzen dira.

Baiña, Legeak bere azpia marratuta daukanagaz, “*ekanduzko lotsagizunean, zor eskubidearen ordezkoko ekintzak, danoren ardurazko baitagaz bardinduta*”, bizitzaren orekazko bakeak argitu gengizan.

Egiztapen ederra bizitzak emoten daukuna da, eta adierazpen aundiena, Jainkoak bizitz oneitara eragille lez bialtzen gaituenaren bidetik agertzen jakuna.

Baiña, zelango eragilletasunetan gabiltz ?.

Norkeriaren asmakuntzazko alegiñaren bidez: “amarruti<sup>(1)</sup>, maltzur, okerrak eta biurritzko eragilleak izanda ?”.

(1) *Amarruti = marrullero, socarròn, astuto, solapado, taimado.*

Berezko arrazoiakin begitu ezker, ezin lei sinistu antzoki onetan egiten gagozenarekin, eta geiago, gaur daukagun jakintzarekin ezin leikelako ulertu, “gaia, giza ta errigizartearen eskubideakaz egiten dana”.

Euskaldunak, orregaitik begitu bear doguz edestiko atal oneik, begitu bear diran *berezko* begiakaz.

Ikusi daigun zelan: “Orain 2.763 urtetik gaur arte, Euskalerrriaren arazoak bardiñak dirala. Ez Frantzia eta Espainagaz, *berea bakarrik dalako*, Europarena dalako baizik”.

Gaurko egun oneitan, Kataluniako Sitgesen batu dira mundu onen jakintsu aundi ei diranak, eta artu dabezan erabagietatik bat, gizaren eskubideak, daukaguzan laterrizko arauetan zaindu bear dirala da.

Gizaren eskubideak nondik nora zaindu, *errigizartearenak* ez ba dira zaintzen ?.

Zelako jakintsuak dira, ezer argitzeko *gai* ez diranak?.



Europarentzat, diru, agintaritza eta lege bardiñak gure dabez ezarri: “*Ordezkaritza*” menpeko jaurkintzan, daukaguzan “*Laterrietan*” ekanduz, ezin dabezanak zaindu.

Eta garrantzizko gauzeetatik, aundienak aztu ?.

Edo ta Giza ta Errigizartearen Nortasunakin ezer ez egiteko, lan edo idaz maiaren gorde lekuan sartu?.

Euskaldunak arlo onetan, *ziur ta zuurtasun aundiz* jokatu bear dogu, iñozokerietan ibili barik, bizitzan, Euskalerrriaren Nortasunezko Demokrazi lez irauteko.

Gure Euskal Arbasoak milla urte askotako edesti luzean, ainbeste eramankizunagaz eutsi dautso daukagun Demokrazizko Nortasunari.

Gu izango ete gara, *Jainkoari eskaiñi bear dautzagun altxor aundi orren ondatzailleak ?.*

Bete daiguzan patxadaz eta lelokeri barik gure *bizitzaren euskal ordezko eginkizunak, mundu onen gizarte on guztiekin osagarritzak izanda.*

*Eta, Jainkoak aginduko Bereztasunaren Legeak ondo ordezkatuta, munduko errigizarteak aurrerantzean be: “Jakín dagien, Euskal Aberritasunezko Jendekuntzagaz, adierazpen ederrenetariko bat emon jakola, gaitutako bizitz oneri”.*

Euskalerrriaren kondaira onetan oraiñarte ikusi dogu, Euskadiri iñork ez dautsola beren nortasunetik ezer kendu, nai guda indarrarekin menperatuta euki arren.


**Atutxa'tar Paul**

*Zornotza'n 2.011'n Epailla'ren 29'an*



# #Euskaldun barrientzat

## Zazpi utsak



# Ikasten

3		4			6		5
8			9	4	6		7
			8		3		
9			7		2		1
		7				3	
4			5		1		8
			6		4		
5			1	9	8		6
7		8				9	4

## Sudoku

7	6	8	3	2	5	9	1	4
5	4	3	1	9	8	2	7	6
2	1	9	6	7	4	8	5	3
4	3	2	5	6	1	7	9	8
1	5	7	4	8	9	3	6	2
9	8	6	7	3	2	5	4	1
6	7	1	8	5	3	4	2	9
8	2	5	9	4	6	1	3	7
3	9	4	2	1	7	6	8	5

# E u s k a l a s t e a



**Bilbao**  
UDALA  
AYUNTAMIENTO

Urte guztietan lez, aurten be Euskerazaleak Alkartean ospatuko da.

2011-11-21.- PABLO ATUTXA - II. KARLISTADA

2011-11-22.- ERIKA URANGA - ARAGOI ETA EUSKERA

2011-11-23.- KLAUDIO BARROETA - BILBO KIROLAK

2011-11-24.- ANGEL LARREA - BIZKAIKO BASERRIAK

2011-11-25.- PABLO ATUTXA - II. ZATIA

**ESKERRIK ASKO ETORTZEAGAITIK**

Tokia: Colon de Larreategi – 14 - 2ª esk.

Ordua: Zazpiretan

**EUSKERAZALEAK**

## IPUIN SARIKETA

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariaketa iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

– Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearke dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZAK argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

– Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

– Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER-en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

– Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN etxean (Bilbaoko Colon de Larreategi, 14, 2ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer-en agertuko da, Urterillan.

– Sariak bost izango dira:

1. <sup>a</sup>	300 euro	4. <sup>a</sup>	120 euro
2. <sup>a</sup>	240 euro	5. <sup>a</sup>	60 euro
3. <sup>a</sup>	180 euro		

– Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

– Epea azillaren azkenera arte.

– Mesedez bialdu CD edo disketea

**EUSKERAZALEAK**

## ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:


..... tar .....

..... kalean (auzoan)..... zenbakian

..... errian, ..... errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko ..... diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela, an daukadan      zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN “**ZER**”. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!



Begoñako Andra Mari,  
Bizkaiko zaindari,  
zure seme maitaleak  
zugana kantari.

Ama maite biotzeko bigun eta garbi,  
Bizkaiko seme-alabak artu ta zain beti.

Itsas gizon sinestunak zugan dabe kabi,  
artzain gaixo, menditarrak, zugan euren begi.  
Lugin eta langileak zuri otoilari,  
aberatsak ta txiroak zaituela argi.

Ama maite biotzeko, bigun eta garbi  
Bizkaiko seme alabak artu ta zain beti.

Gure lanak eta ametsak zerutik onetsi,  
zuzenbide ta bakea denontzat jadetsi.  
eriotzan gure alde otoi ta erruki,  
zure ondoan zoriona euki daigun beti.

Ama maite biotzeko, bigun eta garbi  
Bizkaiko seme alabak artu ta zain beti.